

KARMELE IGARTUA



XII. EDIZIOA
SORKUNTZA BEKA

POESIA



OINARRIAK



PARTE HARTZAILEAK

16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan.



LANAK

Poesia-liburua euskaraz idatzita egongo da. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Lanak originala izan behar du, argitaratu gabea eta euskaraz idatzia, ez da onartuko itzulpenik. Aurkezten den lanak gutxienez 500 lerro eta gehienez 800 arteko luzera izango du. Lerro arteko tarteak 1,5koa izango da.



GAIA

Gaia librea izango da.



AURKEZPENA

Lanak posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke.

Posta arruntez:

- 📍 Helbide honetara bidaliko dira: Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta
- 📍 Udaletxean bertan ere aurkez daitezke, jendaurreko ordutegian.
- 📍 Lanak hirukoiztuta aurkeztuko dira, gutun-azal baten barruan. Gutun-azalaren kanpoko aldean, helbidearen gainean, hau adieraziko da: "Kultura: Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketa. 2022: Poesia". Ale bakoitzak izenburua izango du orrialde guztietan.
- 📍 Gutun-azal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutun-azal itxi bat sartzea (plika). Gutunazal horren kanpoko aldean gidoiaren izenburua bakarrik jarriko da, eta barruan datu hauek:
 - Egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta jarraian, curriculum laburra.
 - NAN edo pasaportearen fotokopia.
 - Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa dela eta argitaratu edo estreinatu gabea, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
 - Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

